



SATSE, ELA, LAB, CCOO ETA UGT SINDIKATUEK ELKARRETARATZEAK DEITU DITUZTE OSAKIDETZAN, OSASUN SAILAREN IMMOBILISMOA SALATZEKO ETA BENETAKO NEGOZIAZIOA ESKATZEKO

Pasa den martxoaren 9an sindikatu horiek Lan Harremanen Kontseiluan deitutako bilerara ez agertu Osakidetza, eta horrez geroztik negoziatzeko borondate eza erakusten jarraitzen du.

Bi aste baino gehiago igaro dira langileen gehiengo zabal batek osasun publikoan deitutako bigarren greba-egunarekin bat egin zuenetik, eta Osakidetza oraindik ez du aurpegia eman eta ez du pauso bakar bat ere eman lantokietan bizi diren arazo larriak konpontzeko; izan ere, langileek eta herritarrek horien ondorioak jasaten dituzte.

Gogora dezagun azken mobilizazioen jarraipena historikoa eta oso jendetsua izan zela, eta, zalantzarik gabe, bizi dugun egoeraren larritasunaren eta berehalako konponbide sakonak abiaraztearen premiazotasunaren islarik onena dira.

Gaur argi eta garbi ikusten da Sagardui Sailburuak greba aurreko egunean egindako adierazpenak propaganda hutsa zirela eta, jakina, greba bertan behera geratzea zutela helburu. Gogora dezagun egun horretan, abenduaren 31an bete behar zuen (oraindik bete ez duena) akordio bat erabili zuela propaganda egiteko, Garapen Profesionalerako deialdi berri batera 300 milioi euro baino gehiago bideratuko zirela adierazi zuenean. Iragarpen horri gehitu zion erredukaziorako eta elkarriketarako unea zela. Hitz haietatik ia hilabete igaro ondoren, oraindik ez da ez gauza bat ez bestea bete, iragarritako deialdia ez baita egin, eta ez bait dago inolako elkarriketarik, ezta erredukaziorik ere.

Bistan da mobilizazioa dela Osakidetza mugiaraztea lortzen duen tresna bakarra; izan ere, mobilizazioen intentsitateak behera egiten duen heinean, bere erantzun bakarra da immobilismorik absolutuena. Osakidetza, azken asteotan gure osasungintza publikoaren arazo larriak konpontzeko egin duen gauza bakarra izan da LEP eskax (1.611 plaza) baten azterketen data iragartzea. Bere hitzetan, EPE horren helburua da langileak egonkortzea baina duela urtebete 24.600 aldi baterako langile baino gehiago zeuden Osakidetza (10etik ia 6) eta beraz, deialdi txiki hori ez da konponbidea. Argi dago, propaganda hutsetik harago, ez dagoela aurrera egiteko eta plantillaren lan-baldintzak hobetzeko inolako borondaterik. Eta lan-baldintza duinik gabe, ez dago kalitatezko osasun-arretarik.

Behin eta berriz salatu dugu Mahai Sektoriala bide antzua bihurtu dela, eta Osakidetza propaganda tresna gisa erabiltzen duela: informazioa trukatzeko foro bat da, inolako negoziatorik gabe. Informazio hori akordioaren emaitza balitz bezala egiten da publiko, alde bakarreko erabakiak direnean, eta askotan prentsari mahaiko kideei baino lehenago jakinarazten zaizkie. Horregatik, pasa den martxoaren 9an, Lan Harremanen Kontseiluan bilera bat egiteko deia egin genion Osakidetza, "zero mahaiko" bilera bat egiteko asmoz. Mahai horretan, gutxienez, negoziatio-metodologia bat adostu nahi genuen, hartu beharreko premiazko konponbideei modu egokian aurre egin ahal izateko. Osakidetza ez zen bilera horretara joan. Bitartean, langileek eta herritarrek egoera jasanezin baten ondorioak pairatzen jarraitzen dute.

Testuinguru horretan, SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuok elkarretaratzeak deitu ditugu gaur Txagorritxu Ospitalean, Donostia Ospitalean, Galdakao Ospitalean, Lakuabizkarra Osasun Zentroan, Elgoibarko Osasun Zentroan eta Deustuko Anbulatorioan. Eta hori guztia Osasun Sailaren immobilismoa salatzeke eta benetako edukiak izango dituen negoziazioa eskatzeko.

Berriro ere, negoziazorako deia egiten diogu Osakidetzari konponbideak bilatzeko eta egoera bideratzeko. Baina ohartarazi nahi diogu berriro ere ez dugula ez xantaiarik ez propaganda-ekintzarik onartuko. Benetako negoziazioa eskatzen dugu, irtenbide eta hobekuntza zehatzetan islatuko dena. Ildo horretan urratsik ematen ez bada, ez dugu berriro Mahai Sektorialean parte hartuko eta mobilizazioekin jarraituko dugu.

Euskal Herria, 2022ko martxoak 18.



LOS SINDICATOS SATSE, ELA, LAB, CCOO Y UGT CONVOCAN CONCENTRACIONES EN OSAKIDETZA PARA DENUNCIAR EL INMOVILISMO DEL DEPARTAMENTO DE SALUD Y EXIGIR UNA NEGOCIACIÓN REAL Y CON CONTENIDOS

Después de que el pasado 09 de marzo no acudiera a la reunión convocada por estas centrales sindicales en el Consejo de Relaciones Laborales, Osakidetza sigue mostrando una nula voluntad negociadora.

Han pasado más de dos semanas desde que la plantilla secundaria de manera mayoritaria la segunda jornada de huelga convocada en la sanidad pública y Osakidetza sigue sin dar la cara y sin dar ni un sólo paso para solucionar los graves problemas que se viven en los centros de trabajo y cuyas consecuencias soportan tanto la plantilla, como la ciudadanía.

Recordemos que el seguimiento de las últimas movilizaciones ha sido histórico y multitudinario y es, sin lugar a dudas, el mejor reflejo de la gravedad de la situación que atravesamos y de lo urgente que es poner en marcha soluciones inmediatas y de calado.

Hoy queda más en evidencia que nunca que las manifestaciones de la Consejera Sagardui el día anterior a la primera de las jornadas de huelga revestían un carácter puramente propagandístico y pretendían, claro está, desactivar la huelga. Recordemos que utilizó un acuerdo que debía haber cumplido el 31 de diciembre pasado para hacer propaganda cuando señaló que se iban a destinar más de 300 millones de euros a una nueva convocatoria de Desarrollo Profesional, anuncio al que añadió que *“es el momento de la recuperación y el diálogo”*. Transcurrido casi un mes desde aquellas palabras, sigue sin cumplirse ni una cosa ni la otra ya que ni se ha hecho la convocatoria anunciada a bombo y platillo, ni existe diálogo ni recuperación alguna.

A la vista está que la movilización es la única herramienta que logra mover mínimamente a Osakidetza ya que, en la medida que la intensidad de las mismas decae, la respuesta es el más absoluto inmovilismo. Todo lo que Osakidetza ha hecho en las últimas semanas para solucionar los graves problemas de nuestra sanidad pública ha sido anunciar la fecha de los exámenes de una OPE raquítica, de apenas 1.611 plazas, OPE que según sus palabras tiene como objetivo estabilizar a una plantilla en la que hace un año, había mas de 24.600 temporales, casi 6 de cada 10. Es evidente que, más allá de la pura propaganda, no existen voluntad alguna de avanzar y de mejorar las condiciones laborales de la plantilla. Y sin condiciones laborales dignas, no hay servicio sanitario de calidad.

Hemos denunciado de manera reiterada que la Mesa Sectorial se ha convertido en una vía muerta, que es utilizada por Osakidetza como acto de propaganda: es un foro de intercambio de información sin ningún tipo de negociación, información que se hace pública como si fuera fruto del acuerdo, cuando son decisiones unilaterales que en muchas ocasiones se comunican a la prensa antes que a los miembros de la propia Mesa. Es por ello que, el pasado 9 de marzo, convocamos a Osakidetza a una reunión en el CRL, en un intento de celebrar una “mesa cero” en la que al menos se pactase una metodología de negociación para poder afrontar de manera digna la negociación de las urgentes medidas que se deben tomar. Osakidetza no asistió a dicha reunión. Entretanto, tanto la plantilla como la ciudadanía siguen soportando las consecuencias de una situación insostenible.

En este contexto, los sindicatos SATSE, ELA, LAB, CCOO y UGT hemos convocado para hoy concentraciones en el Hospital Txagorritxu, Hospital Donostia, Hospital Galdakao, Centro de Salud Lakuabizkarra, Centro de Salud de Elgoibar y Ambulatorio de Deusto. Y ello con el objetivo de denunciar el inmovilismo del Departamento de Salud y exigir una negociación real y con contenidos.

Una vez más, hacemos un llamamiento a la negociación. Volvemos a emplazar a la otra parte a negociar para buscar soluciones y reconducir la situación. Pero también advertimos a Osakidetza que no vamos a tolerar chantajes ni actos propagandísticos. Exigimos una negociación real y con contenidos que fructifique en soluciones y mejoras concretas. Si no se dan pasos en ese sentido, no volveremos a participar en la Mesa Sectorial y continuaremos con las movilizaciones.

Euskal Herria, 18 de marzo de 2022.